



7. EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Eliza Katolikoak inmatrikulaturiko ondasunei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0677]

EA-NV, EH Bildu eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

76/2015

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die urgentziaz eska diezaiotela Euskadiko Jabetza Erregistratzaileen eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoko Dekanotzari jaso ditzala, jabetza-erregistro bakoitzeko erregistratzaile titularretatik, Eliza Katolikoak EAEn 1978ko Espainiako Konstituzioa indarrean sartu zenetik egin dituen inmatrikulazio guztien zerrenda eta haiei buruzko datuak.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio behin betiko txosten bat egin dezala sei hilabeteren epean, 1. puntuari aipatzen den zerrenda jaso eta gero, non jasoko diren Konstituzioa onartu zenetik Eliza Katolikoaren izenean inmatrikulatu diren ondare guztiak eta EAEk ondare horietan egin dituen inbertsio publikoak. Txosten hori gaiarekin zerikusia duten administrazio publikoei eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaie dagokionak titulartasuna berreskuratzea ahalbidetze aldera.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio informazio juridiko eta historikoa eman diezaiela, foru-aldundiekin batera, EAEko toki-erakundeei haien ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruz, eta lagundu diezaiela aktiboki Eliza Katolikoak bidegabeki inmatrikulatu dituen ondasunak berreskuratzen".

7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre los bienes inmatriculados por la Iglesia Católica. [10\11\02\01\0677]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu y SV-ES.

76/2015

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a solicitar con urgencia al Decanato de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de Euskadi que recabe de los registradores titulares de los respectivos registros de la propiedad el listado de todas las inmatriculaciones, y datos correspondientes, realizadas por la Iglesia Católica en la CAPV desde la entrada en vigor de la Constitución española de 1978.
2. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco a que, tras la recepción del listado a que se refiere el punto 1, elabore un informe definitivo en el plazo de seis meses, en el que se contengan todos aquellos bienes que desde la aprobación de la Constitución han sido inmatriculados a favor de la Iglesia Católica y las inversiones públicas realizadas por la CAPV en esos bienes. Ese informe será enviado a las administraciones públicas afectadas y al Parlamento Vasco con el fin de facilitar la recuperación de la titularidad que corresponda.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a prestar, conjuntamente con las diputaciones forales, a las entidades locales de la CAPV la información jurídica e histórica relativa al origen y derechos de su patrimonio público, así como a apoyarlas activamente en la recuperación de los bienes inmatriculados indebidamente por la Iglesia Católica".

